



ATAUNGO UDALA

UDALAREN KUDEAKETA AZKEN ASTEOTAN

Koronabirusak eragin duen egoera dela eta, Ataungo Udalean erabakitakoak eta egindakoak laburbiltzea da idatzi honen xedea. Erabaki eta eginkizun nagusiak jasoko ditugu, halaberharrez, xehetasunetan sartu gabe.

Martxoaren 12an erabaki genuen Udalaren ardurapeko eraikin guztiak ixtea eta bertan behera uztea iragarrita geneuzkan kontzertu, zine-emanaldi eta gainerakoak. Martxoaren 13an sartu zen indarrean erabaki hori, eta harrezkero hainbat mezu, ohar eta gomendio zabaldu ditugu — paperean, webgunean, Twitter-en, Instagramen, Whatsappez eta posta elektronikoz—, bai beste erakunde batzuetatik jasotako eskariari erantzuteko, bai gure erabakiak herritarrei jakinarazteko.

Hauek dira erabaki eta eginkizun nagusiak sailez sail laburbilduta. Esan gabe doa osasuna eta zaintza lehenetsi ditugula.

Gizarte-politika:

- Boluntarioen sarea osatu, erosketak egiteko laguntza eskaini herritar guztiei, eta boluntarioen lana koordinatu.
- Bakarrik bizi diren eta etxez etxeko laguntza-zerbitzurik jasotzen ez duten 70 urtetik gorakoei telefonoz deitu eta laguntza eskaini.
- Etxez etxeko laguntzaile zerbitzuan lan egiten duten langileei eta zerbitzu hori jasotzen duten herritarrei maskarak eskaini.
- Elikadura-bankuko janaria banatzen lagundu Caritasi.
- Interneterako konexioa jarri Izarkom kooperatibaren bidez, premia hori zuten etxeetan, herriko ikasle guztiek ikasketa-prozesuarekin jarraitu ahal izateko.
- Indarkeria matxistaren biktimak artatzeko zerbitzuen eta telefono-zenbakien berri eman.
- Lahar enpresarekin —eguneko arreta-zerbitzua eta adinekoen gimnasia— geneukan konpromisoa bete ikasturte amaierara arte, nahiz eta zerbitzua etenda egon.
- Gaztelekuko jarduerari jarraipena eman online.

Nekazaritza eta ingurumena:

- Herrian sortutako produktuak herrian bertan kontsumitzeko kanpaina prestatzen jarraitu.

- Sortzen dugun zaborra ondo bereizita atera behar dela eta ontzi egokian bota behar dela gogorarazteko kartela.
- Gau eta egun entzuten dugun tiro-hotsa dela eta, bilerak Foru Aldundiarekin, Ertzaintzarekin, lursailen jabeekin...

Kultura:

- Hitzartuta geneuzkan ekitaldiak ahal denean egiteko konpromisoa.
- Sormen-lehiaketa antolatu: #ataundarroketxean
- Liburuak gomendatzeko ekimena, Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira.
- Aisialdian euskaraz aritzeko baliabideak eta gomendioak.
- Etxealditik Euskaraldira ekimena zabaldu.

Kirola:

- Martxan dauden ikastaroak online emateko koordinazio-lana.
- Gimnasioaren erabiltzaileei bi aukera eskaini: itxita egongo den denbora-epaigatik dagokien zenbatekoa itzuli edo datorren urteko kuotatik deskontatu.

Hirigintza:

- Saltokien atariak garbitu eta desinfektatu.
- Aurrez esleituta edo lizitatuta geneuzkan lanak —Kotxerako zubi txikia, kirol antitzeko pista eta kale-argiteriaren bigarren fasea— gauatzeko konpromisoa.
- Gipuzkoako Urak-ekin adostu ur-hoditeriaren zati bat berritzea, fibrozementua kentzen jarraitzeko.
- Apirilaren 24ko erauntsiak kaltetutako bideak konpontzeko bilerak eta koordinazio-lana.

Ogasuna:

- Ibilgailuen zerga apiriletik urrira atzeratu.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Funtsetik % 20-25 (300.000 €) gutxiago jasoko dugunez, aurrekontua doitzen hasi.

Ez dakigu datozen urteak nolakoak izango diren, baina argi dago koronabirusak eragin duen egoera hau guztia mugarri izango dela, eta baldintzatu egingo duela, bai gure bizimodua, baita udalgintza bera ere.

Ez genuke idatzi hau bukatu nahi azken asteotan gure artetik joan direnak aipatu gabe eta senitartekoei doluminak eman gabe: Patxi Etxeberría Arratibel, Joxe Antonio Bikuña Agirre, Maritxu Goikoetxea Imaz, Tomasa Urbiztondo Urbiztondo, Ramon Imaz Arratibel eta Migel Apalategi Arratibel. Gudan beude!

Ataunen, 2020ko apirilaren 30ean

